

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 7/2023 Zerga premiazko araugintzako Dekretua, abuztuaren 1ekoa. Onestea Berotegi Eftuktuko Gas Fluordunen gaineko Zergari buruzko uztailaren 9ko 27/2014 Foru Arauaren aldaketa

Uztailaren 8ko 14/2022 Legeak aldaketak egin ditu Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean, kontratazio publikoan mikrokroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen (ETE) estatistikak arautzeko. Besteak beste, berotegi eftuktuko gas fluordunen gaineko zerga aldatu du.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 34. artikulua arabera, berotegi eftuktuko gas fluordunen gaineko zerga itundutako tributua da, eta, salbuespenak salbuespen, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arauak erabiliko dira hura eraentzeko.

Aurrekoa dela-eta, beharrezkoa da uztailaren 8ko 14/2022 Legeak egin dituen aldaketak Arabako Lurralde Historikoaren zerga araudian txertatzea.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inpaktuaren txosten laburra.

Horrenbestez, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Berotegi Eftuktuko Gas Fluordunen gaineko Zergari buruzko uztailaren 9ko 27/2014 Foru Araua aldatzea

Aldaketa hauek egiten dira Berotegi Eftuktuko Gas Fluordunen gaineko Zergari buruzko uztailaren 9ko 27/2014 Foru Arauan:

Bat. 1. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"1 artikulua. Izaera

Berotegi eftuktuko gas fluordunen gaineko zerga zeharkako zerga bat da, Espainiako lurraldean horrelako gasen erabilera kargatzen duena."

Bi. 2. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"2. artikulua. Esparru objektiboa

Zerga honen ondorioetarako, "berotegi eftuktuko gas fluordunak" hauek dira: hidrofluorokarburoak (HFC), perfluorokarburoak (PFC) eta sufre hexafluoruroa (SF6), berotegi eftuktuko gas fluordunei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 517/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ageri direnak –erregelamendu horrek indarrrik gabe utzi du 842/2006 (EE) Erregelamendua–, bai eta substantzia horietako edozein daukaten nahasturak ere."

Hiru. 4. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“4. artikulua. Zergaren ordainarazpena eta ikuskapena

Bat. Arabako Foru Aldundiari dagokio zerga ordainaraztea honako arau hauei jarraikiz:

Lehenengoa. Zergaren eremu objektiboko gasak fabrikatzen diren kasuetan, jarduera hori Arabako Lurralde Historikoan kokatutako establezimenduetan egiten bada.

Bigarrena. Gas fluordunak saltzen edo entregatzen diren kasuetan, bai eta gas fluordunen biltegizain gisa baimendutako zergadunek gas kontsumoak egiten dituzten kasuetan ere, euren jarduera Arabako Lurralde Historikoan kokatutako establezimenduetan egiten badute.

Hirugarrena. Zerga honen eremu objektiboko gasak Europar Batasunaren barruan eskuratzen diren kasuetan, zergadunaren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago, gas fluordunen biltegizain gisa baimendutako zergadunak direnean izan ezik, horiei aurreko bigarren araua aplikatuko baitzaie. Europar Batasunaren barruko eskurapenak establezimendurik gabeko zergadun batek egiten dituenean, haren ordezkariaren egoitza fiskala Arabako Lurralde Historikoan badago.

Laugarrena. Zerga honen xedeko gasen edukitze irregularraren kasuetan, edukitze irregularra egiaztatzen den unean gasak Arabako Lurralde Historikoan badaude.

Bi. Arabako Foru Aldundiko organoek egingo dituzte zergaren egiaztapenak eta ikerketak, aurreko Bat apartatuan xedatutakoaren arabera hura denean eskuduna zerga ordainarazteko. Horrek ez du inola ere galaraziko zerga administrazioen arteko elkarlana.”

Lau. 5. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“5 artikulua. Definizioak

1. Zerga honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira definizio hauek:

a) “Europar Batasunaren barruko eskurapena”: eskuratzaillearentzat zergaren aplikazio lurraldera, salbu eta Kanarietara, Ceutara eta Melillara, Europar Batasuneko beste estatu batetik eskualdatzailleak, eskuratzailleak berak edo hirugarren batek aurreko bietako baten izenean eta kontura bidaltzen edo garraiatzen dituen zergaren xedeko gasak baliatzeko ahala lortzea.

Europar Batasunaren barruko eskurapenekin parekatutako eragiketatzat joko da, halaber, zergaren xedeko gasen jabeak gas horiek hartzea zergaren aplikazio lurraldean (salbu eta Kanarietan, Ceutan eta Melillan), jabeak berak beste estatu kide batetik bidalita.

b) “Gas fluordunen biltegizaina”: Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluan aipatzen den pertsona fisiko edo juridikoa edo entitatea, bulego kudeatzaileak baimenduta dagoena, erregelamenduz ezartzen den eran, foru arau honen 9. artikuluko 4. zenbakian aurreikusitako araubidea aplikatuz eskuratu ditzan zergaren xedeko gasak.

c) “Suntsipena”: berotegi efektuko gas fluordun baten osotasuna edo zatirik handiena modu iraunkorrean eraldatzeko edo deskonposatzeko prozesua, berotegi efektuko gas fluordun ez den/diren substantzia egonkor bat/batzuk sortzen duena/dituen.

d) “Ekipamendu militarra”: helburu militarretarako berariaz erabiltzekoak diren armak, munitzioak eta gerrako materialak, Estatu kideen segurtasunaren alorreko funtsezko interesak babes-teko beharrezkoak direnak.

e) “Fabrikazioa”: zergaren xedeko produktuak lortzea.

Ez da fabrikaziotzat joko berotegi efektuko gas fluordunak birziklatzeko eta birsortzeko eragiketak egitea. Nahasturak lortzea ere ez da fabrikaziotzat joko.

f) "Inportazioa": eragiketa hauek joko dira inportaziotzat:

1) Zergaren aplikazio lurraldera (Ceutara eta Melillara izan ezik) zergaren xedeko produktuak ekartzea Europar Batasuneko aduana lurraldeaz kanpoko lurraldeetatik, baldin eta horrek bide ematen badio produktuen praktika libreko tramitazioari, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko 952/2013 (EB) Erregelamenduaren 201. artikulua arabera (erregelamendu horrek Europar Batasuneko aduana kodea ezartzen du).

2) Zergaren xedeko produktuak Kanarietara sartzeari Europar Batasuneko aduana lurraldearen barruan baina zergaren aplikazio lurraldetik kanpo dauden lurraldeetatik, baldin eta sarrera horrek bide eman badio praktika libreko tramitazioari, zergaren xedeko produktuak Europar Batasuneko aduana lurraldeaz kanpoko lurraldeetatik ekarritakoak direnean.

3) Zergaren xedeko produktuak Ceutara eta Melillara sartzeari zergaren aplikazio lurraldeaz kanpoko lurraldeetatik, baldin eta sarrera horrek praktika libreko tramitazioari bide eman badio, hiri horietan aplikatzekoa denean 952/2013 (EB) Erregelamendua.

g) "Nahastura": bi substantziaz edo gehiagoz osatutako fluidoak, substantzia horietako bat, gutxienez, 517/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskineko zerrendan egonda.

h) "Bulego kudeatzailea": Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egiturari buruzko dekretuaren arabera berotegi efektuko gasen gaineko zerga kudeatzeko eskumena duen zerbitzua.

i) "Atmosfera berotzeko ahalmena" edo "ABA": berotegi efektuko gas batek atmosfera berotzeko zenbaterainoko ahalmena duen, karbono dioxidoak (CO₂) duen ahalmenarekin alderatuta, hau da, kilogramo bat berotegi efektuko gasek ehun urtean zenbat berotu dezakeen atmosfera kilogramo bat CO₂rekin alderatuta, 517/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean xedatutakoaren arabera. Nahastura baten ABA kalkulatzeko, zergaren xedeko gas fluordunetako bakoitzak nahasturaren pisuan hartzen duen frakzioa beraren ABAz biderkatu ondoren, frakzioen baturaren batezbesteko haztatua kalkulatzen da.

j) "Birziklatzea": berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga aplikatzekoa den lurraldean garbiketarako oinarrizko prozeduraren bidez egiten den tratamendua.

k) "Birsortzea": berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga aplikatzen den lurraldean prozedura edo tratamendu fisiko-kimikoen bitartez egiten diren tratamendua eta hobekuntza, gas fluordunaren ezaugarri teknikoaren arauzko mailak berreskuratzea helburu dutenak.

l) "Edukitze irregularra": zergaren xedeko gasak edukitzea, merkaturatzea, garraiatzea edo erabiltzea, gas horiek eduki, merkaturatu, garraiatu edo erabiltzen dituenak ez badu frogatzen berak fabrikatu, inportatu, Europar Batasunaren barruan eskuratu edo zergaren aplikazio lurraldean eskuratu dituela gas horiek, edo aduanako zaintzapean daudela, 952/2013 (EB) Erregelamenduari bat etorritik.

m) "Zergaren aplikazio lurraldea": Espainiako lurraldea.

n) "Hirugarren lurraldea": zergaren aplikazio lurraldetik kanpo dagoena.

2. Foru arau honetan agertzen diren kontzeptu eta termino substantiboek dagokienez (artikulu honetan definitutakoak salbu), berotegi efektuko gas fluordunei buruzko Europar Batasuneko eta Estatuko araudian xedatzen dena bete beharko da."

Bost. 6. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"6. artikulua. Zerga egitatea

1. Honako hauek daude zergapean: berotegi efektuko gas fluordunen fabrikazioa, inportazioa, Europar Batasunaren barruko eskurapena eta edukitze irregularra.

2. Zerga egitatea gauzatutzat joko da bai gasak ontziratuta aurkezten direnean, bai produktu, ekipamendu edo aparatuen osagai gisa aurkezten direnean."

Sei. 7. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“7 artikulua. Zergarik gabeko kasuak

Honako hauek ez daude zergapean:

a) Zergaren xedeko gasak fabrikatzea, inportatzea, Europar Batasunaren barruan eskuratzea edo zergaren aplikazio lurraldean modu irregularrean edukitzea, baldin eta gehienez 150eko ABA badute.

b) Zergaren xedeko gasak fabrikatzea, baldin eta zuzenean zergaren aplikazio lurraldetik kanpoko lurralde batera bidaltzen baditu fabrikatzaileak berak, edo fabrikatzailearen izenean edo haren kontura diharduen hirugarren batek.

c) Berotegi efektuko gas fluordunak zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidaltzea, baldin eta 9. artikuluko 4. zenbakian aurreikusitako araubidea aplikatu bazaie.

Aurreko b) eta c) letretan ezarritakoa aplikatu ahal izateko, frogatu egin beharko da zergaren xedeko gasak zergaren aplikazio lurraldetik irten direla.”

Zazpi. 8. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“8 artikulua. Salbuespenak

1. Honako hauek salbuetsita daude, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, kasua bada:

a) Zergaren xedeko gasak fabrikatzea, inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzea, gas horiek lehengai gisa erabiltzekoak badira beren eraldatze kimikorako, eta prozesu horretan erabat aldatzen bazaie konposizioa. Gas horiei etiketa jarri behar zaie horretarako erabiliko direla adierazteko, 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

b) Zergaren xedeko gasak inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzea, helburua baldin bada haiek merkaturatzea suntsitu egin daitezen. Etiketa jarri behar zaie, ontzian dagoen gasaren helburu bakarra suntsitzea dela adierazteko, 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

c) Zergaren xedeko gasak fabrikatzea, inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzea, helburua baldin bada haiek ekipamendu militarretan erabiltzea. Etiketa jarri behar zaie, ontzian dagoen gasaren helburu bakarra horixe dela adierazteko, 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

d) Zergaren xedeko gasak Europar Batasunaren barruan eskuratzea, baldin eta, zerga egitate horri dagokion zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitu aurretik, gasak zuzenean zergaren aplikazioko lurraldetik kanpora bidaltzen baditu Europar Batasunaren barruko eskuratzaileak berak edo haren izenean eta kontura diharduen hirugarren batek.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko baldintza izango da produktuak zergaren aplikazio lurraldetik benetan atera direla egiaztatzea.

e) Zergaren xedeko gasak inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzea, hirugarren lurralde batetik datozen bidaiarien ekipaje pertsonalaren parte direnean eta, betiere, merkataritzako bidalketa batekoak ez direnean.

Tresnak edo aparatuak kargatzeko zergaren xedeko gasez beteta eramaten diren ontziak ez dira bidaiarien ekipaje pertsonalaren partetzat joko.

Bidaiariak daramatzaten produktuak merkataritzako bidalketa batekoak ez direla honako kasu honetan ulertuko da: bidaiariak berak edo ahaideek erabiltzeko edo opari gisa eskaintzeko lantzean behin eskuratzen diren ondasunak izaki, duten izaeragatik eta kopuruagatik merkataritzako jarduera bateko gaiak direnik ezin pentsatu daitekeenean.

f) Zergaren xedeko gasak fabrikatzea, inportatzea edo Europar Batasunaren barruan eskuratzea nazioarteko itsas nabigazioan edo aireko nabigazioan ari diren itsasontzietara edo aireontzietara eramateko; salbuespena: jolaserako nabigazio pribatua.

Zergadunek zergaren xedeko gasak eskuratzaileri lehen aldiz entregatzen edo eskura jartzen dizkietenean, aurretiazko aitorten bat eskatu beharko diete, zeinean adierazi beharko baitute produktuok zertarako erabiliko diren. Aitorten hori Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 65. artikuluan aipatzen diren preskripzio epeak amaitu arte gorde beharko da.

2. Aurreko zenbakiko a), b), c) eta f) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatu ahal izateko baldintza izango da gasen benetako helburua frogatzea.”

Zortzi. 9. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“9. artikulua. Sortzapena

1. Fabrikazio kasuetan, zerga sortuko da fabrikatzaileak eskuratzailerari lehen aldiz entregatzen edo eskura jartzen dizkionean zergaren xedeko gasak zergaren aplikazio lurraldean, edo, hala denean, fabrikatzaileak erabiltzen dituen berak fabrikatu dituen zergaren xedeko gasak.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zerga egitatea gauzatu baino lehenagoko ordainketa aurreratuak egiten badira, prezio osoa edo zati bat kobratzen den unean sortuko da zerga, benetan hartutako zenbatekoengatik.

Fabrikatutako zergaren xedeko gasen izakinak gutxitzen direnean, pentsatuko da, kontrako frogarik ezean, fabrikatzaileak erabili, entregatu edo eskura jarri dituela izakinetatik falta diren gas horiek, zergaren aplikazio lurraldean. Kasu horretan, izakinak gutxitu egin direla jakiten den unean sortuko da zerga, kontrako frogarik ezean.

2. Inportazio kasuetan, aduana legeriarekin bat, inportazio eskubideak sortu behar liratekeen unean sortuko da zerga, inportaziook aipatu inportazio eskubideei lotuta egon ala ez.

3. Europar Batasunaren barruko eskurapenetan, zergaren xedeko gasak eskuratzailerari igortzen edo harenganantz garraiatzen hasi eta hurrengo hilaren 15ean sortuko da zerga, salbu eta eragiketen faktura egun hori baino lehenago igortzen denean, azken kasu horretan faktura igortzen den egunean sortuko baita zerga.

4. Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, zergaren xedeko gasak fabrikatu eta gero gas fluordunen biltegizain bati entregatzen edo eskura jartzen zaizkionean, edo fabrikatzailea, inportatzailea nahiz Europar Batasunaren barruko eskuratzaila biltegizain bat denean, zerga sortuko da biltegizainak gasak entregatzen edo eskura jartzen dizkionean biltegizain ez den bati, edo gasak erabiltzen direnean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeko, gas fluordunen biltegizainak bere izaera hori frogatu beharko du zergaren xedeko gasen saltzailearen aurrean edo inportazioko aduanan, bulego kudeatzailearen baimena aurkeztuz.

Jasotako zergaren xedeko gasen izakinak gutxitzen direnean, pentsatuko da, kontrako frogarik ezean, biltegizainak erabili egin dituela edo biltegizain ez den bati entregatu edo eskura jarri dizkiola izakinetatik falta diren gas horiek, zergaren aplikazio lurraldean. Kasu horretan, izakinak gutxitu egin direla jakiten den unean sortuko da zerga, kontrako frogarik ezean.

5. Edukitze irregularreko kasuetan, edukitze irregularra egiaztatzen den unean sortuko da zerga, kontrako frogarik ezean.”

Bederatzi. 10. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“10 artikulua. Zergadunak eta gainerako zergapekoak

1. Zerga honetan, 6. artikuluko 1. zenbakian azaltzen diren kasuetan, zergadunak dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. apartatua aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoak, zergaren xedeko gasak fabrikatzen, inportatzen edo Europar Batasunaren barruan eskuratzen badituzte.

Inportatzaileztat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 86. artikuluan ezarritakoaren arabera izaera hori dutenak.

2. Aurrekoa gorabehera, 9. artikuluko 4. zenbakiko kasuetan gas fluordunen biltegizainak dira zergadunak.

3. Zergaren xedeko gasen edukitze irregularreko kasuetan, gas horiek eduki, merkaturatu, garraiatu edo erabiltzen dituen izango da zergaduna.

4. Beren helburuaren zioz salbuespena aplikatu zaien zergaren xedeko gasen erabileraren edo helburuaren justifikazioa dela-eta irregulartasunen bat gertatzen bada, zergadunek ordaindu beharko dituzte zerga eta ezartzen diren zehapenak, harik eta frogatu arte, 8. artikuluan aipatutako aurretiazko aitorpena aurkeztuz, produktuak jaso behar dituen eskuratzailerak produktuak jaso dituela. Behin produktuak jaso eta gero, betebeharra eskuratzailerena izango da.”

Hamar. 11. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“11 artikulua. Zerga oinarria

1. Zergaren xede diren gasen pisuaren arabera izango da zerga oinarria; pisua kilogramotan adieraziko da.

2. Aurrekoa gorabehera, zergaren eremu objektiboko gasak dauzkaten produktu, ekipamendu edo aparatuen kasuetan, ez badaude eskura aurreko apartatua xedatutako moduan zerga oinarria zehaztu ahal izateko behar diren datuak, pentsatuko da, kontrako frogarik ezean, gas kopuru hauek dauzkatela:

a) Etxeko hozkailu eta izozkailuak: 0,250 kilogramo, hozte-potentziaren unitate bakoitzeko (hozte-potentzia kW-etan adierazita).

b) Industriako hozte-konpartimentuak eta merkataritzako hozte-instalazioak: 1,5 kilogramo, hozte-potentziaren unitate bakoitzeko (hozte-potentzia kW-etan adierazita).

c) Industriako izozte-konpartimentuak eta merkataritzako izozte-instalazioak: 2,5 kilogramo, hozte-potentziaren unitate bakoitzeko (hozte-potentzia kW-etan adierazita).

d) Aire girotzeko ekipamendu eramangarriak: 0,250 kilogramo, hozte-potentziaren unitate bakoitzeko (hozte-potentzia kW-etan adierazita).

e) Eraikinetako aire girotuaren sistemarako, bero-ponpetarako eta hezetasuna kentzeko makinetarako hozte-ekipamenduak: 0,500 kilogramo, hozte-potentziaren unitate bakoitzeko (hozte-potentzia kW-etan adierazita).

f) Turismo-ibilgailuetarako aire girotua: 0,600 kilogramo ibilgailuko.

g) Furgoneta, kamioi eta orga jasotzaileetarako aire girotua: 1 kilogramo ibilgailuko.

h) Karabana, autokarabana eta ibilgailu berezietarako aire girotua: 2 kilogramo ibilgailuko.

i) Autobus edo autokarretarako aire girotua: 5 kilogramo ibilgailuko.

j) Aerosolak, gehienez 250 mililitroko edukiera dutenak: 0,125 kilogramo ontziko.

k) Aerosolak, 250 mililitrotik gorako eta gehienez 500 mililitroko edukiera dutenak: 0,250 kilogramo ontziko.

j) Aerosolak, 500 mililitrotik gorako eta gehienez 1.000 mililitroko edukiera dutenak: 0,5 kilogramo ontziko.

m) Isolatutako atekak eta atetzarrak: 0,25 kilogramo metro karratuko.

n) Zigilatzekeo aparra: 500 gramo kilogramoko.

ñ) Isolamendurako poliestireno estrumentua: 2,5 kilogramo metro kubikoko.

o) Hozkailu eta izozkailuetarako panelak: 6 kilogramo metro kubikoko.

p) Esnea hozteko tangak, zeharkako hozte sistema: 1 kilogramo, hozte-potentziaren unitate bakoitzeko (hozte-potentzia kW-etan adierazita).

q) Esnea hozteko tangak, zuzeneko espantsio sistema: 2 kilogramo, hozte-potentziaren unitate bakoitzeko (hozte-potentzia kW-etan adierazita)."

Hamaika. 12. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"12 artikulua. Zerga tasa

Honela kalkulatu da zerga tasa: 0,015eko koefizienteaz biderkatuko da zergaren xedeko gas bakoitzari zerga egitatea gauzatzen den unean dagokion atmosfera berotzeko ahalmena, une horretan indarra duen araudiari jarraituz. Gehieneko tasa 100 eurokoa izango da kilogramoko.

Zergaren xedeko gasak dauzkaten produktu, ekipamendu eta aparatuen kasuetan, atmosfera berotzeko zer ahalmen dagokien jakiten ez bada, pentsatuko da kilogramoko 100 euroko zerga tasa aplikatu behar zaiela, kontrako frogarik ezean."

Hamabi. 13. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"13 artikulua. Kuota osoa

Zerga oinarriari karga tasa aplikatzearen emaitza izango da kuota osoa."

Hamahiru. 14. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"14 artikulua. Kenkariak

1. Ondoren azaltzen diren inguruabarrak gertatzen diren likidazioaldi bakoitzeko autolikidazioan, eta, halakorik bada, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzetan, zergadunek likidazioaldi horretan sortutako kuotetatik kendu ahal izango dute zergadunak berak edo haren izenean edo kontura diharduen hirugarren batek zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidalitako gasengatik ordaindutako zergaren zenbatekoa.

Artikulu honetan jasotako kenkaria aplikatu ahal izateko, gasak zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidali direla frogatu beharko da Zerga Administrazioaren aurrean, zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabiliz, eta zerga ordaindu dela ere frogatu beharko da.

2. Aurreko apartatuaren arabera bidezkoak diren kenkarien zenbatekoa likidazioaldian sortutako kuoten zenbatekoa baino gehiago bada, gaindikina hurrengo autolikidazioetan konpentsatu ahal izango da, baldin eta gaindikina sortu den likidazioaldia amaitu denetik lau urte igaro ez badira."

Hamalau. 15. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"15 artikulua. Itzulketak

1. Honako hauek eskubidea izango dute ordaindutako zergaren zenbatekoa itzultzea eskatzeko, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, kasua bada:

a) Zergaren xedeko gasen inportatzaileak, baldin eta gas horiek zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidali badituzte inportatzaileek eurek nahiz haien izenean edo kontura diharduen hirugarren batek.

b) Zergaren xedeko gasen eskuratzailerak, baldin eta, zergadun ez izanik, gas horiek zergaren aplikazio lurraldetik kanpora bidali izana frogatzen badute.

c) Zergaren xedeko gasen eskuratzailerak, baldin eta, zergadun ez izanik, frogatzen badute gas horien helburuak bide emango lukeela 8. artikuluko 1. zerbakiko f) letran jasotako salbuespena aplikatzeko.

2. Aurreko zenbakian jasotako itzulketak aplikatu ahal izateko, zenbaki horretako letretan azaldutako inguruabarrak gertatu direla frogatu beharko da Zerga Administrazioaren aurrean, zuzenbidean onargarri den edozein frogabide erabiliz, eta zerga ordaindu dela ere frogatu beharko da.

3. Kenkarien zenbatekoa urte naturaleko azken likidazio aldian sortutako kuoten zenbatekoa baino gehiago izanez gero, zergadunek, erregelamenduz ezartzen den moduan, kasua bada, eskatu ahal izango dute beren aldeko saldoa itzultzeko likidazio aldi horretako autolikidazioan.

4. Arabako Foru Aldundiak egingo ditu artikuluko honetan xedatutakoaren arabera bidezkoak diren itzulketak, itzuli beharreko kuoten diru sarrera berari egin bazaio. Dena dela, ezin baldin bada jakin kuotak zein administrazioan sartu ziren, itzultzeko eskubidea duenaren lurraldeko administrazioak itzuli beharko ditu."

Hamabost. 16. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

"16 artikulua. Kudeaketa arau orokorrak

1. Zergadunen betebeharra izango da zergaren autolikidazioa egin eta zerga ordaintzea. Likidazio aldia hiruhileko naturalarekin bat etorriko da.

Hala ere, inportazioetan, aduanetako araudiak xedatutakoari jarraituz aduanetako zorra likidatzen den eran likidatuko da honako zerga hau ere.

2. Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarriko ditu epeak, modua, ereduak, betekizunak eta baldintzak aurreko zenbakian aipatutako autolikidazioak aurkezteko eta, kasua bada, zergaren itzulketak eskatzeko.

3. Erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, zergaren xedeko gasak fabrikatzen, inportatzen edo Europar Batasunaren barruan eskuratzen dituzten zergadunen eta gas horien biltegi-zainen betebeharra izango da Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren Lurralde Erregistroan inskribatzea.

Erregelamenduz ezarriko dira erregistro horren edukia eta inskripzioarako, bajarako eta erre-bokazioarako prozedurak.

Zenbaki honetan aipatutako inskripzioa jarduera hasi aurretik egin behar da.

4. Merkataritzako arauetan eta beste arau fiskal batzuetan ezarritako kontabilitateko betebeharrak ezertan eragotzi gabe, zergaren xedeko gasak fabrikatzen dituzten zergadunek, gas horien biltegi-zainek eta, kasua bada, zenbait inportatzaile edo Europar Batasunaren barruko eskuratzailerak, gas horien kontabilitatea eraman beharko dute bitarteko elektronikoak erabiliz, bai eta gasak lortzeko behar diren lehengaiena ere, hala badagokie.

Erregelamendu bidez zehaztuko da zer kasutan ez den beharrezkoa izango betebeharrak hori betetzea, eta, halaber, zer baldintza bete behar diren kontabilitate hori eramatean.

5. Espainiako lurraldean establezimendurik ez duten zergadunek pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute Zerga Administrazioaren aurrean ordezkari dituzten zerga honengatik dituzten betebeharrak dagokienez. Izendapen hori egin beharko dute zerga honen zerga egitatearen lehen eragiketa egin aurretik, eta behar bezala frogatu beharko dute.

Hamasei. 17. artikulua aldatzen da eta honela geratzen da:

“17 artikulua. Arau haustek eta zehapenak

1. Artikulu honetan aurreikusitako xedapen bereziak ezertan galarazi gabe, zerga honen araudiaren kontrako tributu arloko arau haustek Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta Zergen arloko Arau Hausteen eta Zehapenen Araudia onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 97/2008 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

2. Tributu arloko arau haustek izango dira:

a) Ez betetzea 16. artikuluko 3. eta 5. zenbakietan ezarritako betebeharra, hau da, ez inskribatzea Berotegi efektuko gas fluordunen Lurralde Erregistroan.

b) Ez betetzea 16. artikuluko 5. zenbakian ezarritako betebeharra, hau da, zergaren aplikazio lurraldean establezimendurik ez duten zergadunek ordezkari ez izendatzea.

c) 9. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoa aplikatu duten gas fluordunen fabrikatzaileek edo biltegiak murrizketa izatea gasen izakinetan.

d) Zergaren xedeko gasen eskuratzailerik bidegabeki jasotzea 8. artikuluan ezarritako salbuespenen onura, salbuespena aplikatzeko bide eman zuen gasen helburua justifikatzen ez denean.

3. Honako arau hauei jarraituz zehatuko dira arau haustek:

a) Aurreko zenbakiko a) eta b) letretako arau hausteei diruzko isun finkoa ezarriko zaie, 1.500 eurokoa.

b) Aurreko zenbakiko c) letrako arau hausteari diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, gasei legokiekeen kuotaren zenbatekoaren ehuneko 100ekoa.

c) Aurreko zenbakiko d) letrako arau hausteari diruzko isun proportzionala ezarriko zaio, bidegabe hartutako zerga onuraren ehuneko 150ekoa, eta 1.000 eurokoa gutxienez.

4. Artikulu honetan aurreikusitako zehapenei Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean 192. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.”

Hamazazpi. 18. artikulua edukirik gabe uzten da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Izakinen saldoaren jakinarazpena, autolikidazioaren aurkezpena eta betebeharrorik ez betetzearen ondoriozko zehapenen araubidea.

Gas fluordunen fabrikatzaileek eta 5. artikuluan 8. apartatuan (2022ko irailaren 1era arte indarrean egondako testuan) xedatutakoaren arabera birsaltzaile direnek Ogasun Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote, 2023ko irailaren 30a baino lehen, zenbat gas fluordun eduki dituzten euren instalazioetan 2022ko irailaren 1ean.

Halaber, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan, jakinarazpen hori egin beharko dute berotegi efektuko gas fluordunak ekipamendu edo aparatu berrietan lehenengoz sartzen dituzten enpresaburuek, baldin eta foru arau honen 7. artikuluko 1. zenbakiko d) letran (lehenagoko idazketan) aurreikusten den salbuespenaren onura hartzen badute.

Jakinarazpen hori epean ez aurkeztea, osorik ez aurkeztea edo datu oker edo faltsuekin aurkeztea tributu arloko arau haustea da. Arau hauste horrengatik 500 euroko diruzko zehapen finkoa ezarriko da, eta aplikatzekoa izango da Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean 192. artikuluan xedatutakoa.

Erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, biltegiak ez diren birsaltzaileek autolikidazioa aurkeztu beharko dute 2023ko azaroaren 30a baino lehen. Bertan jaso beharko dituzte euren instalazioetan 2022ko irailaren 1ean eduki dituzten gas fluordunen izakinei dagozkien kuotak. Autolikidazioa aurkeztearekin batera, ondoriozko zerga zorra ordaindu beharko dute.”

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Araubide berezia, sistema elektrikoak fabrikatzeko erabiltzen den sufre hexafluorurorako.

2023ko abenduaren 31ra arte salbuetsita egongo dira, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan, produktu elektrikoak fabrikatzeko erabiltzen den sufre hexafluoruroaren fabrikazioa, inportazioa eta Europar Batasunaren barruko eskurapena. Etiketa jarri behar da, ontzian dagoen gasaren helburu bakarra horixe dela adierazteko, 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Bigarrena. Araubide berezia, osagai farmazeutikoak dosifikatzeko inhalagailuetan erabiltzen diren zergaren xedeko gasetarako

2026ko abenduaren 31ra arte salbuetsita egongo dira, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan, osagai farmazeutikoak dosifikatzeko inhalagailuetan erabiltzen diren zergaren xedeko gasen fabrikazioa, inportazioa eta Europar Batasunaren barruko eskurapena. Gas horiei etiketa jarri behar zaie horretarako erabiliko direla adierazteko, 517/2014 (EB) Erregelamenduaren 12. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko irailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasuneko zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA